

## Mariposas en el hierro eta Fenix 1123 filmako protagonistak Areatzan

12. eta 14. orrialdeak

## Zeanurik irabazi eban Diman

Zeanurik, batzuetan aldeak handiak izan ez baziran be, errez irabazi eutsan Dimari apirilaren 13an gainezka egoan Dimako frontoian egin zan herri bien arteko herri kiroletako desafioren lehen norgehiagokan. Honeek izan ziran egin beharrekoak: txokorrak, zakua, txingak, ingudea, trontzea, aizkorea eta sokatirea. Ibon Iza ibili zan aurkezle lanetan. 10. orrialdea



## Ibilbide bi apirilaren 21ean egingo dan Ubideko Biran

12. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 184

2013ko apirilaren 17a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Lemoako alkate ohia akusazinopean eta informazino bilkurak bertan behera

EAJ-PNV eta PSE-EEren aldeko botoakaz eta Bilduko kontrakoakaz informazino Bilkurak kentzeako mozinoa onartu eban Lemoako Udalak.

Informazino Bilkurak kentzearen helburuak, oposizioaren arabera, "baliabideak optimizetea" eta "denporea hobeto erabiltea" dira. Bilduren ustez "herritarrek parte hartzeako mekanismoak oztopatu eta ezabatu gura ditue" oposizinoako taldeak.

Beste alde batetik, Jabier Beobide Lemoako alkate izandakoa, epaiketearen zain dago prebarikazino akusazinopean. Lemoako Udalaren lan premina batzuk kubriduteko 2010ean lan-boltsa bat egin behar izan zan eta Lemoan baino ez publiketea ebatzi zan Udal Pleno baten, legeak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publiketea eskatzen dauan arren. 5. orrialdea



Pleno bat Lemoan.

### ZEANURI

## Doitzaile-trokelgile ikastaroa eta lana Zulaibarren



Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegiak doitzaile-trokelgile ikastaro teoriko-praktikoa antolatu dau Batz S Koop-egaz batera. Praktikak Batzen egingo dira eta amaitutakoan baita behin-behineko kontratua be. Izena Lanbiden emon behar da. 6. orrialdea

### IGORRE

## Batzek 50 urte beteko ditu aurten

50 urte dira 1963ko abenduaren 21ean Batz erregistrau zanetik. Hori dala eta hainbat ekintza dira kooperatibeak prestatu dituanak. Aitagarienen artean, maiatzean argia ikusiko daben liburu eta bideoa dagoz. Maiatzeko 10-11ko astegoiena be ekintzaz beteta dator, 11n atea zabalduko deutsez Batzek arratiarrai lantokia barrutik ezagutu dagien. Maiatzaren 10ean barriz, ekitaldi instituzionala izango da. Fundatzaileak, Udala, mankomunidadea, Mondragoi Kooperatibako beste enpresa batzuk eta abar egingo dira bertan. 7. orrialdea

### ARRATIA

## Ortua terrazan

Urietan lursail hutsetan, balkoietan, eraikuntzako teilatuetan eta beste eremu batzuetan ortuak ipinten dabiz aspaldi honetan. Arratia landa eremua izan arren, lurrik ez daukienak filosofia honetan topau dabe ortuari osasungarriak jateko modua. Uriko ortuetan balore hezigarri eta ekologikoak sustatzen dira.

Diman lurrak partzelauta daukiez eta proiektu bat dago martxan herritarren esku ortuak ipinteko. 8. eta 9. orrialdeak



TROKELGILE DOITZAILEA ikastaroa (300 ordu) + praktikak enpresan  
**IKASLEEN % 60a KONTRATATZEKO KONPROMISOA**

### BALDINTZAK:

Goi Mailako Zikloa Fabrikazino Mekanikoko Produktzioaren Programatzea, edo  
Goi Mailako Zikloa Mekanizazino Bidezko Produktzioa, edo  
Makina-Erremintako Lanbide Heziketa II (FPII)

Informazinoa:  
jonzabala@zulaibar.org  
Tfnoa: 94 673 91 16

Inskripzinoa:  
www.lanbide.net

## IGTIE

IGORREN ASTEROKO  
PLAZA EGITEKO  
KONPROMISOA

Igitietik abiatutako elikadura burujabetzaren aldeko lanean, merkaturatze zuzenaren beste proposamen batez gatzoz. Apiletik aurrera (martxan dago honezker) Igorreko herrian zapaturo azokea antolatutako konpromisoa hartzean dogu.

Baserritar eta konsumitzaileentzat elikadura bera eskubidea izan behar da eta ez salgai hutsa. Horretarako, nekazarien eta konsumitzaileen arteko hartuemonak landu eta zubiak ezarri behar doguz. Holan, argi eta garbi ikusi ahal izango dogu ez dala gauza bera konsumitzailea eta konsu-

mista izatea. Horrez gain, oso kontuan hartu beharra dago be kontsumitzaileak gero eta informazio gehiago euki gura dabela elikagaien gainean, beste era bateko hartu-emonak egin gura dituela baserritarrak eta elikadura osasungarria izan gura dabela.

Elikadura burujabetzea sustatzen dogun erakundeok gero eta sarriagotan aztertu eta bultzatu egiten doguz merkaturatzeko zirkuitu laburrak. Beraz, sistemak berak zehaztutakoak ez, beste parametro batzuk erabili behar doguz zirkuitu laburrak azaltzeko orduan, hau da, euren alde politikoa hartu behar dogu kontuan, honako hauxe jorratu ahal izateko: personen konpromisoa, personen arteko hartu-emonak, alkarregazko ezagutzea eta ahalik

eta erantzukizun partekatu handiena, banaketa-kateak dituan mailen kopurua edozein izanda be.

Kanal zuzenaz egiten dogunean berba, ekoizpenaren eta konsumoaren artean ezelango bitartekaririk ez dagoala adierazo gura dogu.

Igitietik orain arte egin doguzan merkaturatzeko ekinbideetan jaso dogun erantzunak indartu gaitu gure bidean, eta era berean zelako beharizanak dagozan helarazo deuskuzue. Apurka bagoaz ekoizleak indartzen eta barriak barneratzen eta honez batera konpromiso barriak hartzeako prest gagoz Baina danon alkar-lana funtsezkoa da egitasmo honek era duin baten gauzatu ahal izateko.



## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**

**Aprilaren 15etik 21era**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

**Aprilaren 22tik 28ra**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

**Aprilaren 29tik maiatzaren 5era**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265****Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Kudeatzailea:** Inigo Iruarrizaga.

**Erredakzino taldea:** Clara Luja Azpiri, Ane Rilo eta Irati Urien.

**Maketazinoa:** Inigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjuregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tirada:** 6.600 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.600 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

**Babesleak:**

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



bbk



## ZEURE BERBEA

### Igorreztarren Batzarra

Igorreko Udalak eta Bilduk bereziki bultzatzen daben herritarren parte-hartze prozesuaren harira aldizkari bat eta konbitea postontzira heldu jatazan: zezeilaren 27an Igorreztarren Batzarra Kultur Etxean izango zala aurrekontu eta herriko hainbat arazotaz berba egiteko eta igorreztarren partaidetzea bultzatzeko. Kanpoan izan naz eta ez dot jarraitu prozesu osoa, baina poztu egin nintzan ikustean aurreko urtean parte-hartzearen inguruan izandako batzarrak eta dinamikak bere frutuak emoten hasi zirala eta herritarrentzako tresna barriak sortu egin zirala. Jente gehiago espero baneban be, joandakoak emondako azalpenen inguruan informazio interesgarria jaso eta gure eretxia emon genduan. Lehen aldia zan izen edo modu honetan alkartzan ginala eta jarduerak bera guztiz positibotzat jotzen dot, eta jarraipena izan dagiala espero dot. Dana dala, bere hobekuntzeari begira, eta jakinda aurten beste batzar batzuk izango dirala, gauza pare bat aitatu gura neuke:

Alde batetik aurrekontuak modu orokorrean grafikoki aurkeztean interesgarria litzateke gastu finkoak kenduta (personala, udaletxeko funtzionamenturako gastu orokorrak...) atal desbardinai eskeintzen

jakon dirua: urigintzea, gastu sozialak, euskerea, bardintasuna, kulturartekotasuna, gazteria, hezkuntzea...

Beste aldetik, Igorreztarren Batzarreko lehenengo batzarrean agertu ziran azalpen gehienak urigintzearen ingurukoak izan ziran (akaso aurrekontu parte hartzaileen gaineko auzo batzarretan bildu zana abiapuntu hartuta) eta nire ustez herrian badagoz beste arazo eta beharizan batzuk be. Izan be, beharizan horreei erantzuteko dirua egongo da. Beraz, ea modu monografikoan urigintzaz egin zana, beste aspektu horreen gainean be hurrengo Igorreztarren Batzarra egitea ez litzateke txarto egongo.

Aurrekoagaz ez dot esan gura urigintzan ez dala erabili beharreko dirua inbertidu behar, baina horretan erabilitako dirua eta beste beharizanetan erabilitakoaren artean oreka handiago baterantza joatea ezinbestekotzat jotzen dot, batez be bizi dogun krisi sasoi honetan. Hortik zehar dabil diskurtso aurreakoi hori: "porlanean baino personen zentru gaitzean". Igorren be ereigi behar dogu, ez bakarrik zementoz: umeakandik hasita, persona aske, konprometiduak, zoriontsuak eta parte-hartzaileak ereigiteko utopia daukagu.

Azkenik jente guztia holako foroetan parte hartzera animetan dot, eta modu paraleloan ume edota gazteentzako antzeko zerbaist sustatzera.

**ROBERTO SALAZAR MUÑOZ  
IGORRE**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEHIOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Goatu



Hainbat esangura ditu goatu berbeak: eskuakaz zezeri heldu; zezer hartu edo harrapatu; txakurraren kasuan, haginika egin; baita be, albisteak jaso, edo azkenik, gaixoakaz kutsatu. Agoskatzeko erak be hainbat dira, Arratian honeexek: goatu, goratu (Igorren eta Zeberion jaso), oratu (idazleen artean gehienbat), guatu, (Diman), eta gatu (agoskatuta, goátu, gorátu, orátu, guátu, gátu). Aditz honegaz sortutako berbaalkarketa batzuk dira: gatukera, gatuleku/goatuleku...

## ERETXIA

### Zientziaren transmisioa bide onetik doa?

**A**urrerakuntza zientifiko-teknologikoak gero eta garrantzitsuagoak dira personeren egunerokotasunean, goizean altzetan garantetik gaubean barriro oheratuten garan momenturarte. Baina normalean ez gara konziente izaten zientziari emoten deusagun erabileraz, benetako beharizan garrantzitsuren bat daukagun arte. Orduan konturatu gara zientziari buruz daukagun ezagutzea nahiko mugatua dala. Gainera, zelan egin ahal deusagun aurre arazo honeri, bai unibersidadean zientzia graduatuko eta bai institutuetoako adar zientifiko-teknologikoko ikasle kopurua urtetik urtera txikituz badoa?

Gure ikuspuntutik egoera hau azaltzen daben arrazoi ugari dagoz. Alde batetik, gizartean zientziaren inguruan dagozan uste eta bildurak aitatu geinkez; ikasketari jagokienez, gaxagoak dirala entzuten da sarritan. Egia da eguneroko behar handiagoa eta esfortzu jarraitua eskatzen dabela, eta gaur egungo ikasle asko ez dago horretarako prest, atzenengo momentuan ikasi eta azterketa gaintitza baino ez dabe gura eta. Horrek ez dau esan gura gaxak diranik, ohitura aldaketa bat behar dala baino.

Bestetik, egia da zientziaren hizkuntza ez dala beti ulerkorra izaten, kontzeptu abstraktuak eta berba tekniko ugari erabilten dauz eta, sarritan ikustezinak edo imajinetako gaxak diranak. Beharbada, hizkuntza hori ondo ulertu ahal izateko beharrezkoak diran oinarriko ezagutzak ez doguz behar dan moduan barneratzen, nahiz eta ikastetxeetan gero eta ardura handiagoa jartzen deusagun gai honeri. Gainera, maila akademikoan, Bigarren Hezkuntzan behintzat, curriculum ofizialak markautako kontzeptu eta prozedurak ez dira gure ustez adin horretarako ikasleentzat egokienak, kasu askotan

### ROSA BILBAO, MAIALEN RAMOS, HEKTOR RODRIGUEZ ETA ANA BEGOÑA SANCHO

Arratia Institututuko irakasleak

ez dira erakargarriak izaten ikasleentzat.

Honen harira, komunikabideak zientzia ulerkorra egiten be gitxi laguntzen dabela esan geinke. Lehen aitatu dogun zientzia eta teknologiak egunerokotasunean daukien garrantziak gero eta isla handiagoa dauka komunikabideetan, kuantitatiboki asko hazi da zientzia gaitzat daukien barri kopurua, baina kasu gehienetan barri horreetan emoten diran azalpenak ez dira edozeinek ulertuteko modukoak izaten. Kontu handiagoa jarri beharko leiteke gai honetan, zientzia jentearengana hurreratu beharrean, kontrako efektua lortzeako arriskua dagoala uste dogu eta.

Gauzak holan, zientziari emondako trataerea eta beraren gaineko azalpenak emoteko erak garrantzi handia dauka, eragin zuzena daukalako hartzailearengan. Zientzia munduan beharrean gabizenok eta komunikabideetan arlo honeri buruzko ardura daukien kontuan izan beharko geunke zabaldutako informazioa ahalik eta modu ulerkor eta errezenen transmitidutea ezinbestekoa dala, danontzat mesedegarria izango dalako zientziari buruzko ezagutza handitzea gizartean. Horregaitik, sano positibo ikusten doguz Areatzan Aitor Bergara EHUko irakaslearen laguntzeagaz antolatutako berbaldiak. Gaur egungo zientziari buruzko azalpenak edozeinek ulertuteko moduan emoten dauz Aitorrek berbaldi horreetan. Halanda be, orain arte emondako hitzaldi bietan jentearen erantzuna nahiko eskasa izan da. Hemendik hurrengoetara joatera animau gura dogu jentea, benetan merezi dauala uste dogu eta. Seguru gagoz hurreratzen dan bat baino gehiago harritu egingo dala, zientzia ulertu egin daitekeela konprobatzerakoan.

Amaitzeko, eskerrak emon gura deusaguz antolatzailei holango ekintzak prestatzeagaitik, eta bide horretatik jarraitu dagien animetan doguz.

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

**IZAN GINAN...**

**...BAGARA ETA IZANGO GARA**

Enkainak Batz gurekin

MONDRAGON

## LUMATUTEN



## IGOR ESTANKONA

## Aprilak 9

**N**ire urteguna, eta izeko Eldarena, eta Olatz aukozkoarena, eta Ingeren neba txikerrarena, orain nire double izango da, klaro. Eta buelta horretan hil dira Margaret Thatcher, Jose Luis Sampedro, gure Joxan Lizarribar. Glasgowen meatzariak txanpana atera dabe. Gogoratu naz Thatcherren Londresera joan zirala Gaizka Uriarte, Oskar Beitia, Iñigo Kari-de... ekarten ebezan altzairuzko damaren kontrako haizeak, gangarrak, kaseteak. Madrilen 15Mkoak gogoratu dabe agure sumindua. Eragin egin zidan *La vieja sirenak*, Sampedro, badi-notsut: erotismo elegante baten ateak zabaldu eustazuzan, erdera desbardin batenak.

Eta Joxan Lizarribar gaur. Handik hona joko baleu lez haize baltz batek. Prest eukan Egunkaria itxi ebenean nezese-rra. Besteen torturetara eroango ebela uste izan eban.

Eta derrepente zahartu naz hamar urte eta piku. Eta derre-

rente gaztetu naz. Ez dakit inoz halakorik pasau jatzuen zuoi. Bakarrik hiltzen diranak dagoz, eta gu euren ondoan gagozala hiltzen diranak dagoz. Ze alegantzia hainbeste tristezia sentiduten dauan jentea eukitea trantze horretan, ezta? Su gorria amatatzen danean enborra gertzen da, haren eraztunak, markak.

Balio be, jentek hemen ixten dauan markak balio dau, konbentziduta nago. Bizitza da amets bat arina, bizi behar dana modu delikaduan. Basoan be hiltzen dira txoriak eta egun batzuen puruan janda dagoz: zelan kantau dabe? Hori da inportanteena. Bizitza erreztu deutzazu ingurukoari? Prestatu dozu bazkari bat inorentzat kapritxo guztiagaz? Itxaron deutzazu monzoiari bildurrez barik lasai, eta gero izan da ederra eta freskagarria? Thatcher edo Sampedro? Aukeran Lizarribar, non inontza jausten dabilen gaur goizean Altzon, nire etxetik hur, behor batek trostan egin dau ule rubioak aidean, gertatu egin da, buelta erdi emon... begiratu egin nau. Zorionak Estankona, esan deusta.

## ZERTZEAN



## IRATI ASTONDOA

## Gaia jarrita: "Korruptzioa"

1

Zelebrekeri galantak egin ta bizi inon kontura jende aurrean arpei onagaz gordez ederto itxura beharra zer dan jakin barik ta bizi erregeen modura aurena nahiko ez dala eta beste guztiona gura.

2

Hasi ginean Jesus Gilegaz ta segidu Pantojagaz Guadalupeko pisuak eta Marbellako txaletakaz zabor boltsetan sartu ta gero itxure ona emonaz nora helduko gara holango lotsabako partideagaz.

3

Valentziako presidentea beste artista handi bat Gürtel kasua zabaldu eta amaitu jakozan koplak nahiz ta ederto bete zituen Camps gizon lehial ta finak Valentziarren diruarekin eindako trajeen boltsak.

4

Eta zer esan Erregearen maitale dogun Corinna hainbeste urte gure kontura auki dauen pinpirina mustur handiak operatuta txaleta eta pistina ta nok ez leuke kondizino hortan egingo beren bardina.

5

Ranking honetan onena dogu Espainiako Erregea podiumean dekoguz behintzet bere suin ta alabea Urdangarinen talentua ta berak daukan ohorea esku baloian ona zan baina esku sartzen hobea.

6

Kontuak kontu klaru dekogu zelan funtzionatzen dauen PPK in dauzen zulo guztiak eta bera aginduen lotsagarrie da egoera ta zera dekot buruen batetik edo bestetik zelan dirue ostuten doskuen.

## BEGI TXINDORRA

**A**urreko martiaren 24an, Areatzatik, munduko alkaterik onena daukan, munduko kongresu eta musika jauregirik onenera hurreratu ginan, munduko musika eta txistu bandarik onenaren kontzertua entzuteko prest. Giro ezin hobez lagunduta, Bilboko Udal Bandaren musikaz gozatzuteko aukerea izan genduan. Gainera kasu honetan, Bilboko bandea ez egoan bakarrik: Kepa Junkera, Oskorri eta Bilboko Udal Txistu Banda eukazan bere ondoan ordu bi baino gehiago iraun eban biaje musikal honetan laguntzeko prest. Kontzertu ederra, lekua ezin hobea eta autobusa beteta! Arrakasta ikusita, hurrengo kontzerturako, autobus bi ipiniko doguz eta askok eskatutako moduan klarete botilak eta pintxotxo batzuk autobusean bueltarako! Biba zuek, *fenomenos!* Eskerrik asko!

**Areatzako Kultur eta Kirol Batzordea**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscsl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarribia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegatu Zirkulu 101  
R.P.S. 21/06

**Olaetxe** OPTIKA ZENTRUA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibatua
- Begiko tentsinoa
- Lentillen adaptazinoak
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
T. 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



LEMOA

# Lemoako alkate ohia prebarrikazino akusazinopean



Lemoako udaletxea.

Jabier Beobide Lemoako alkatea izandakoa, epaiketearen zain dago prebarrikazino akusazinopean. Lemoako Udalaren lan premina batzuk kubriduteko 2010ean lan-boltsa bat egin behar izan zan eta, Lemoan baino ez publiketea ebatzi zan Udal pleno baten, legeak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publiketea eskatzen dauanean.

## Erredakzinoa

Hori egitearen aldeko botoa emon eban EAJ-PNVko sei zinegotziak, EAKo biak eta EBko zinegotziak. PSE-EEko zinegotziak kontrako botoa emon eban. 2011n, irregulartasunak egon zirala eta Elizondoko Lagunak

Alkarteak salaketea ipini eban. Durangoko Instruzino Epaitegiak prebarrikazino delitua egon daitekeala eretxita Bilboko Zigor Epaitegiari pasau deutso auzia hile honetan. Beobideri 60.000 euroko fiantzea ipini deutso epaileak eta fiskaltzak zortzi urteko inhabilitazinoa eskatzen

dau legegintzaldi bitan Lemoako alkatea izandakoarentzat. Epai-etea uda ostean izango da, eta lehenengo saioetan lekuko moduan deklaratzera Udal Idazkaria eta PSE-EEko zinegotzia dan Unai Ortuzar dagoz deituta.

Ustezko delitu honetan, baina, inputadu gehiago egon daitezke,

hau holan egiteko ebatzia alkatearena bakarrik ez zalako izan. Izan be, aldeko botoa emon ebanak "beharrezko kolaboratzaileak" izan ziran eta horreek "inputau gura ditu akusazinoak" Ortuzarren esanetan. Horreen artean, orain alkateorde eta Bilduko zinegotzia dan Niko Urkiza dago.

Juan Mari Magrok Udal Idazkariak be deklarau egin beharko dau Epategian. Idazkariak, El Correori azaldu eutsan "ohartarazo eutsala alkateari publizidade printzipioa ez ebalu betetzen eta publikau egin behar zala boletinean", baina alkatea "egondako irregulartasunaren" jakinaren gainean ez ebalu ipini "zentzu hertsian".

Beobidek "lemoaztarren onerako" emon ebalu herrian bakarrik lan-boltsaren barri dino Deian. "Aurreko kontratazinoetan ezin izan zan lemoaztarrik kontrata, lan-boltsak kanpoko jenteez osotuta egozalako" defendatzen da Deian Beobide.

Partiduen babes dauka Jabier Beobidek eta jokaera ha zabaldua egoala egoera txarrean egoanai lagunduteko dinoe jeltzaleak. Iñaki Barrenetxea EAJ-PNVko Lemoako Uribilduko lehendakariak BEGITU-ri azaldutakoaren arabera, lana lortzeako arazoak eukazan jentee saiatzen ziran lan-boltsatan hartzean. "Momentu haretan, eta beti be legalidadearen barruan gengozala pentsauta, tabloian bakarrik argitaratzea ebatzi gen-

duan, bertan eta denpora luzean lan barik egoan jenteari laguntzearen. Nik uste dot hau herri guztietan gertatzen zala" dino. Barrenetxea Lemoan izan zan zinegotzi 1991tik 2011ra.

Dana dala legeak dino aukera bardintasunaren printzipioaren kontra doala "bertako herritarrak bentajea izateko" udal lanpostuak ez publiketea.

## Erreakzinoak

Esandako moduan EAJ-PNVk injustuztat jotzen dau "egoera txarrean egozaren alde egitearren salaketea ipintea".

Udal Gobernuan dagoan Bilduk, barriz, ez dau komentariok egin gura. "Ez daukagu ezer esateko. Durangoko Epategiak eskatutako dokumentuak bialdu genduzan bere garaian eta epaiketea izan arte honek ez dauka zerikusirik geugaz" azaldu deutso BEGITU-ri Aitor Erauzkin Lemoako Bilduren bozeroaleak. Dana dala, 2010ean EAKo zinegotzia zana Bilduko zinegotzi da gaur egun baina, horren gainean be ez dabe ezer esan gura "oraindino ez dagoalako akusazino formalik".

PSE-EEko Unai Ortuzarrek, barriz, 2010ean eukan jarrera berbera manteniduten dauala dino: "legea betetzeko dago. Danak ekien zer egiten egozan eta egin ebena egin gura izan ebelako izan zan. Arrazoiaren bat eukiko eban, hauteskundeai begira edo beste arrazoiaren bat".

# Informazino bilkurak bertan behera itxi ditu EAJ-PNV eta PSE-EEK aurkeztutako mozino batek

EAJ-PNV eta PSE-EEren aldeko botoakaz eta Bilduko kontrakoakaz informazino Bilkurak kentzeako mozinoa onartu eban Lemoako Udalak. Legegintzaldi hasikeran, adostu zan bilkura honek egitea, PSE-EEren aldeko botoagaz eta EAJ-PNVren abstentzinoagaz.



Pleno baten artxiboko irudia.

## Erredakzinoa

Informazino Bilkurak kentzearen helburua, oposizinoaren arabera, "baliabideak optimizetea" eta "denporea hobeto erabiltea" dira.

Informazino Bilkurak ohiko Osoko Bilkurak baino astebete lehenago deitzen ziran gaiak aurkeztu eta alderdi bakotzak defendatuko eban jarrearen barri emoteko. Gero, herritarrak euren eretxia emoteko aukerea eukien, osoko bilkurara gaiak eroan aurretik.

## Parte-hartzea

EAJ-PNVren ustez, Bilkura infor-

matiboak ez eban onurarik ekarten, "parte hartzerako beste bide batzuk badagoz, ez dabe gendetasuna bermatzen eta osoko bilkuren errepikapenak dira". PSE-EEren ustez, "zinegotzien eta publikoaren momentu txarrak biderkatzea suposatzen dabe".

Saioa Elejabarrieta alkateak, barriz, argi itxi gura izan eban, bilkura desbardin bi dirala "informatiboan gaiak aurkeztu, eztabaidatu eta aztertu egiten dira, osoko bilkuran, barriz, botoa emon". Udal Gobernuaren eretxian, "herritarrak parte hartzeako mekanismoak oztopatu eta ezabatu gura ditue" oposizino noko taldeak. Izan be, hau "herrita-

ren parte hartzea bultzatzeko eta udal funtzionamentua gardenago egiteko" hartutako neurrietakoa bat zan. Udal gobernuaren arabera, arrakasta handikoa gainera "saio guztietan 40 persona inguru alkartu dira gitxienez, eta interes berezikoetan aretoa bete egin da". Oposizinoarentzat be bentajak zituen bilkura informatiboak, hamar egun lehenago eukiten ebalako oposizinoak gai ordenaren barri eta beraz "gaiak hobeto prestatzeko aukerea".

Bertan egon ziran herritarrak euren desadostasuna agertu eban bilkura honek kentzeako ebatziaren aurrean.

## ZEBERIO

## Konposta egiteko ikastaroa

## Erredakzioa

Apirilaren 11n izan zan lehenengo saioa eta 18an eta maiatzaren 2an hurrengoak. Ikastaroan etxean sortzean diran hondakinak konposta egiten ikasten da, ortu eta lorategietan ongari moduan erabilteko. Ikastaroa Zeberio Udalak antolatu eta EHNE sindikatuak emoten dau.

Hamazortzi lagun dabiz ikastaroa egiten, hamar andra eta zortzi gizon, 30 eta 50 urte bitartekoak.

"Martian berbaldi bat egon zan gaia zabaldu eta ikastaroa egiteko prest zenbat jente egongo litzateken ikusteko. Eta jenteak interesa agertu eban" azaldu deutso BEGITURI Lander Astorkia zinegotziak.

Ikastaroak alde teorikoa eta praktikoa izango ditu. Lehenengotik konpost silo bat zelan egiten dan azalduko dau irakasleak, eta gero konposta egiteko siloa egin eta ze bilakaera daukan ikusiko dabe ikasleak.

## BEDIA

## Lau gizon atxilotuta Bedian lapurretea egiteagaitik

## Erredakzioa

Hilaren 9an, Ertzaintzak 24 eta 32 urte arteko lau gizon atxilotu zituan enpresa baten kableak lapurtzeagaitik.

Gaueko hamaikak aldean Ertzaintzan dei bat jaso eben elektrizitate enpresa baten lapurretea egiten ebilelako susmoaz ohartarazoz. Bertara joan eta ertzainak atea palankaz zabaldua egoala eta kableak lapurtzen saiatu zirala ikusi eben. Ustezko lapurrak inguruetan izkutatuta topau zituen.

zidade enpresa baten lapurretea egiten ebilelako susmoaz ohartarazoz. Bertara joan eta ertzainak atea palankaz zabaldua egoala eta kableak lapurtzen saiatu zirala ikusi eben. Ustezko lapurrak inguruetan izkutatuta topau zituen.

## BEDIA



Tinduferra bidalitako autoa.

## Menditik Desertura alkarteak auto bat bialdu dau Tinduferra

## Erredakzioa

Tindufeko errefujiadu kanpamentuko Smarako Maghbes Dairako anbulategiko beharginentzat, auto bat bialdu dau Arratiako Menditik Desertura alkarteak. Auto honek "langileen mugikortasuna erreztu eta larrialdietan arreta zerbitzu arinagoa eskeintzeko balioko dau" alkartekoak adierazo dabenaren arabera.

Kotxea Alacantera eroan eben arratiarrak eta han gidari saharar batek hartu eban eta Tinduferraino eroan.

## Bedia eta Lemoako jentea alkartean

Menditik Desertura alkarteak Bedia dauka egoitza, baina Lemoako jenteak be hartzean dau parte bertan. Alkarteak, hainbat urte daroaz Saharako lurraldearen alde beharrean, "eta honetarako sano garrantzitsua izan da persona, eragile sozial eta alkarte askoren laguntasuna" dinoe alkartekoak. Proiektu honetan Lemoako Udalak, GDKO motorrek, Opel Ibaiganeak eta Lemoako Generali Seguruak, beste batzuen artean, lagundu dabe.

## ZEANURI

## Doitzaile-trokelgile ikastaroa eta lana Arratian

## Erredakzioa

Doitzaile-trokelgile ikastaroa antolatu dau Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegiak Batz S. Koop enpreseagaz batera formazio teoriko-praktikoa eskeintzeko. Ikastaroa maiatzean hasiko da. Hirurehun bat ordu teoriko-praktiko Zulaibarren eta urri lehenengotik aurrera Batzen praktikak egitea eskeintzen ditu ikastaro honek. Lanbide lagundu dau diruz eta izena emoteko Lanbidera jo behar da.

## Lan kontratua

Ikastaroa amaitutakoan, ikasleen % 60k kontratua izango dabe Batzen



Ikasleak Zulaibarren klase baten.

behar egiteko. "Hamalau bat ikasle espero doguz" dino Arkaitz Bernaola Zulaibarrekoak eta ikastaroaren antolatzaileak. Horren arabera, zortzi-bederatzi ikasle kontratatuko ditu Batzek bertan behin-behineko kontratuagaz behar egiteko.

Ikastaro honetan izena emoteko, Fabrikazino Mekanikoaren Goi Mailako Zikloa edo LH II.a behar da.

## IGORRE

## Merkatari talde bi euskerea ikasten dabil hartutako konpromisoa betetzeko

Igorreko dendetan, euskerearen erabilera % 25koa da eta ezagutzea % 60koa, ostalaritzan bajuagoa, Amaia Arauzo Igorreko Euskera Teknikariak emondako datuen arabera.

## Erredakzioa

Horregaitik, ezagutza eta erabilera eragiteko, ikastaro bi antolatu ditu Igorreko Euskera Zerbitzuak merkatariarentzat.

"Euskera Planaren helburuetako bat merkatariarentzako euskera ikastaroak sortzea da eta merkatariak 2012an sinatutako hitzarmenean be jasoten zan euskera ikastaroak eskeiniko genduzala" dino Arauzok. Hitzarmen hori 44 establezimientuk sinatu eben eta

hiru arlo arautzen ditu: irudia eta errotulazioa, agozko harremanak eta barruko funtzionamentua.

## Euskerazko hartu-emonak

Marko horren pean, merkatari talde bi sortu dira aurten astean lau ordukoak, bata hasikera-hasikerakoa eta bestea eusketa apur bat dakienak osotutakoa.

"Normalean jente euskalduna etorten da nire establezimientura eta orain euskeraz egiteko esaten deutset, ulertu ulertuten dot eta"

azaldu deutso BEGITURI Jaione Elortegik QTDkoro7-koak. Edova etxetresna dendako Koldo Palenquek dino eurak be euskeraz egiten animetan dituela bezeroak "nik laguntza daukat, dendari euskaldunak badagoz eta Edovan".

Oraingo talde bi honeek ez dira lehenengoak. Izan be, 2010ean talde bat ibili zan euskerea ikasten eta Euskera Plana sortu zanean alfabetatze ikastaroak egin ziran merkatari euskaldunai zuzenduta.



Ikastaroa egiten dabizen merkatari batzuk.



**begitu**  
arratia ubide zeberio



## IGORRE

# Batz kooperatibeak 50 urte beteko ditu aurten

Estatutu Sozialak 1962an sinatu baziran be, 1963ko Santo Tomas egunean erregistrauzan Batz Madrilen, Kooperatiba Sailean. Hori dala eta, urte osoan dabiz egiten urteurren ospakizun ekintzak.

### Erredakzioa

Aitagarienen artean, laster prest egongo diran liburu eta bideoa dagoz, baita ekitaldiz betetako maiatzeko 10-11ko astegoiena be. Orduan, atek zabalduko deutsez Batzek arratiarri lantokia barrutik ezagutu dagien. Seirehun lagun inguruk egiten dabe behar Igorreko enpresan.

Urtea hasi zanetik "hainbat ekintza egin doguz: logo lehiaketea bazkideen artean, bezeroentzako agenda bereziak, txirindularitza erropak, itxura barria emon deusagu Batzeko sarrera nagusiari eta argazki orokor bat be egin dogu, beste gauza batzuen artean" azaldu deutso BEGITURI AN-

der Bilbao Batzeko presidentea.

### Liburua, bideoa eta ate irekien eguna

Liburua maiatzeko argitaratzea espero dabe Batzekoak. Karmelo Uriarte da honetaz arduratzen dana "ia amaituta dago. 70 orri inguru izango ditu eta bertan batez be Batzen historia kontetan da argazki askogaz lagunduta" dino Uriartek. Bideoa horren laburpena izango da.

Maiatzaren 10 eta 11 "astegoi zentrala izango da. Barikuan, maiatzaren 10ean, ekitaldi instituzionala izango da. Fundatzaileak egongo dira, Udala, mankomunidadea, Mondragoi Kooperatibako beste enpresa

batzuk, bankuak eta zentro teknologikoak. Hurrengo eguna, barriz, ate irekien eguna izango da. Orduan, Batzen erretiroa hartu dabenak, laguntzaileak, familiak, lagunak eta arratiar guztiak etorri daitezke. Txosna bat eta umeentzako puzgarriak egongo dira, plantak bisitatu, ardo dastaketea egin, pintxoak jan eta beste gauza asko" dino Ander Bilbaok.

### Ekitaldi gehiago

Mendi martxak eta bizikleta martxak antolatuko ditu Batzek, eta Igorreko jaietan bere presentzia indartu gura dau. Auto klasikoan lehiaketa bat eta erakustaldia parkinean be antolatuko ditue 50. urteurrena ospatuteko Batzekoak.



Batz.

## ARRATIA

# Heren bik autoa, beste herenak garraio publikoa erabilten dau

### Erredakzioa

BEGITUREN martiako inkesteari erantzun deusien heren bik (% 66,67) eguneroko desplazamenduetan herritik kanpo joan behar badira euren kotxea erabilten dabela dinoe, beste heren batek (% 33,33), barriz, garraio publikoa. Autoa konpartidu edo beste ga-

rraio mota bat, -bizikletea, berbarako- erabilten dauala ez dau inork esan.

Aprileko itauna honako hau da: zure eretxiz noz amaituko dira murrizketak eta eskubide galerak? eta erantzun posibleak honek dira: aurten; 2014an; bost bat urte iraungo dau honek; ez bada sistema osoa aldatzen, inoz ez.



### Noz amaituko dira murrizketak?

## ARTEA

# Unibersidadeak Bildosolan lursail bat erabilteko hitzarmena ez zan onartu

### Erredakzioa

Euskal Herriko Unibertsitateko Formula Student Bizkaiak lursail bat eskatu eutsen Arantzazu eta Arteako Udala Bildosola industriagunean "ibilgailu elektriko baten prototipoa probetako". Hitzarmena ez zan onartu Bildu eta Aldatuz Plataformearen kontrako botoakaz (4 boto). EAJ-PNVk, barriz, hitzarmenaren aldeko botoa emon eban (3

boto).

EAJ-PNVk interesa eukan proiektu horretan "ingeniaritza eta barrikuntza" sustatzen daualakoan. "Borja Uizar Arteako semeak eskatu eban eta udal gobernuua guztiz ados agertu zan proiektuagaz. Astegoienetan erabilteko zan" Alberto Etxebarria Arteako alkatea salatu ebanaren arabera. Oposizinoaren ustez, baina, "lasterketa mundua sustatzeko" ez da "lur publikorik itxi behar".

# www.begitu.org

publizidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



## Gugaz harremanetan ipinteko 94 631 73 14 eta 649 979 112 begitu@topagunea.com



## URIKO ORTUAK

# Uriko ortuak udabarrarian loratzen dira

Ortuak urietara bueltau dira, baina orain uriko ortuak deritxegu. Lursail hutsetan, balkoietan, eraikuntzako teilatuetan eta eremuetan agertzen dira. Kontzeptu barri batzukaz, erabiltzen ez diran lurrai erabilpen barria emoteagaz, konsumo era alternatiboagaz, gizartea sortzeagaz eta negozio era barriakaz lotuta datoz.



Uriko ortua.

Argazkia: Ianire de la Calva.

## Ane Rilo

Uri berde bat, landaraz betea, imaginatu daiteke, non uritar bakotzak bere konsumorako ortuariak landatuko leukezan? Oro har, persona batek bere ortua martxan ipinten dau, etxeko balkoian izan arren, kalidade oneko produktuak jan gurago ditualako eta, era berean, produktuak nondik datozan jakin gura daualako. Horren inguruan azken hamarkadetan mobimentu handia eratu da, leku askotan indarrez errotu da, beste batzuetan, oster, motelago dabil, gure inguruan esate-

rako. Horren harira, Steve Frillmanek, Green Guerillas taldeko zuzendari ejekutiboak, 2010eko urtailaren 5ean "El País" kazetan esan ebanez, "estadu espainiarrean ondino erreza da ortuko produktu onak topetea".

Uriko ortuak ekimen publiko zein ekimen pribaduen eskutik sustatzen dira. Izan be, negozio aukera izan leitekez Innovasque.com-en irakurri ahal izan genduan lez "badagoz enpresak jenteari lurra alokatzen deutesianak, jenteari ortu ludikoak egin daiazan eta badago beste enpresa bat, eraikuntza publikoko eta

etxebizitzako teilatuak moldatzen dituana, Bilbon uriko ortu sarea ipinteko", ortua astialdi era alternatiboan izan leitekela erakutsiz. Baina, hainbat udal be konturatu dira uriko ortuen balore onuragarriaz eta hainbat egitasmo martxan ipini dabez mota horretako ortuak bultzateko asmoz. Innovasque erakundearen arabera "holan errekeruau eta berrera-biltzen dira erabilteari itxitako edo degradatutako gunek".

Uriko ortuetan balore hezigarri eta ekologikoak sustatzen dira, bai eta gure ekintzak ingurumenean daben eraginaz konturatu gaitzean be balio dabe, ahiztu barrik esfortzua, auzolana eta alkartasuna moduko baloreak. Eskolak be botanika, matematikak eta hainbat irakasgai landu leikiez. Gainera, lagungarria izan leitekez zenbait eztabaida bizteko, gai garrantzitsu batzuen gainean; hau da, elikagai transgenikoen konsu-

moaz, elikagaien subirotasunaz, uri garapenez, hazkunde ereduaz eta munduaren globalizazioaz.

El Ecologista aldzikariko 70. alean "Huertos comunitarios" artikuluan, urien eta nekazaritzaren arteko hartu-emon estuaz berba egiten deuskue: "Historian zehar gizakiak urietako inguruko lursailetan ortuak finkatu izan dauz". Baina industrializazioak energia asko eta merkea ekarri eban eta horrek ahalbidetu ebazan uriak handitzea, distantzia luzeko garraioak eta munduko merkaduak hedatzea". Aldizkariaren arabera ilusino faltsua sortarazo euskuen: "tokiko elikagaien horniduratik independentea izatean eta ortuariak edozein urtarotan erosi ahal izatean, elikadurearen eta merkaduren beraren ikuspegi faltsua zabaldu zan gure artean". Artikuluak azpimarratzen dau: "horrek guztiak nekazal eremuetan etenbako degradazioa eta urrun-



Ortua etxe bateko balkoian.

Argazkia: Belagorri Belardenda.

Diman lurra prest daukiez eta eremuak partzelatuta be bai

 mediku naturista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elikagai biologikoak  
zeliakoentzat elikagaiak  
estelziena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

Tel: 94 637 60 00 • email: info@aramotz.com

**ARA MOTZ**  
Lanegunetan O Jartzen!

Barrio Ugarena 2. et. - Adifri Oina - Bilbo - www.aramotz.com

946 319 008  
658 195 091

**GALANTA**  
zure barruko arropa  
M. JOSE  
barrutik janzten zaitu

Agirre Lehendakaria 23  
48.140 Igorre  
galanta@hotmail.es

 [www.facebook.com/galantakalanta](https://www.facebook.com/galantakalanta)





Argazkia: Ianire de la Calva.

tasuna eragin dau". Artikuluan be topau geinke zergaitik sasoi jakin batzuetan uriko nekazaritzara jo izan dan, "ortu desbardinak izan dira. *Poor gardens* deritxenak, XIX. mendeko uri industrialetan eta XX. mendearen hasieran sortu ziran Alemanian, Bretaina Handian eta Ameriketako Estatu Batuetan besteak beste. *War gardens* izenekoak, XX. mendearen lehenengo erdialdean, munduko I. gerrate bitartean, baina batez be bigarreanean. Eta amaitzeko *Community gardens* deitutakoak, hirurogeiko hamarkadan zehar uriko ortuak berpiztu ziran Ameriketako Estatu Batuetako uri handietan". Uriko ortu horreek guztiak funtzino desbardinak bete ebezan. "*Poor gardens* ortuak beharginen baliabide eskasia arintzeko eta biziraupena, osasuna eta egonkortasun soziala bermatzeko balio izan eben. *War gardens* deitutakoak erretaguardiako biztanleen biziraupena bermatzen eben eta *Community gardens* deritxenak Vietnamgo gerrak ekarri ebazan krisialdi

ekonomikoa, gizarte gastuen murrizketa bortitza, erdiguneetako auzoen hustuketea eta krimen tasa oso handiaren ondorioak arintzearen sortu ziran".

Gaur egun, gurean, uriko ortuen mobimentua indartzeko orduan, iturri nagusi bitatik edaten dogu. Batetik, Green Guerillas mugimendutik. Steve Frillmanek, esan eban lez: "New Yorken 600 ortu baino gehiago dagoz uriko auzune askotan". Bestetik, Kubako ereditutik, "berrogeita hamar urteko aldea ateraten deuskue uriko nekazaritzan", Bionekazaritzako kide gasteiztar batek dinoan lez.

Uriko ortuen mobimentua aurrera doa baina ez herrialde guztietan, ezta abiadura berean be. Euskal Herrian be motel antzean dabil, oraingoz behintzat. Baleiteke gakoa Steve Frillmanen berbetan egotea: "Estadu espainiarra orain dala gitxi arte herri nekazaria izan da. Horregaitik urietan gaur egun bizi dan jente askok ortuak antxinako gauzatzat hartzean dauz".

Aurton, Gipuzkoan Kutxa Eko-

guneak hamasei ortu ekologiko, beste hainbat herritan, bultzatuko dauz. Kutxa Ekoguneko zuzendariak dino proiektuak interes handia biztu dauala. Herritarrak eta udalak oso prest agertu dira parte hartzeako. Halanda be zuzendariaren berbetan, "fondoak ez dira amaitezinak eta gainera murrizketa ekonomikoak eragin txarra eukiko dau". Gasteizek be marea berdera igo dau. Izan be, hainbat gizartetxetan kultiboak egiteko mahaia ipini dira. Proiektua arrakastatsua da. Uritar askok parte hartzean dabe. Proiektuaren arduradunak dinoe bertan ortugintzearen gaineko tailerrak, berbaldiak eta jardunaldiak be antolatzen dirala. Autismoa daben umeentzako tailerrak be egiten dabezala adierazo dabe, ortuetan behar egiteak dakarzan ondorio terapeutiko onuragarriakaitik.

Arratian be mobimentu hau

hedatzeko dago. Eskaria egon badago atzora arte nekazaria izan dan eskualde honetan, baina hamarkada gitxitan lurrari atzea emon deusana. Azken Udal Hauteskunde kanpainen alderdi politikoen zerrendan egon zan baina oraingoz behintzat Dimako proiektua baino ez dago bidean. Diman aurreproiektua eginda dago, lurraz prest daukiez eta eremuak partzelauta be bai. Berehala martxan ipinteko asmoa daukie, Udalak adierazo dauan lez. Holan, baleiteke hemen be uriko ortuen marea berdea hedatzen joatea eta munduko txoko honetatik be behin nekazaritza eskuak lurraz zikintzea baino ez zala ebatzi ebenai zein oker egozan erakustea. Betor, bada, 2013an kasualidadez, New Yorken Green Guerillas taldeko aitzindariak lantzean hasi ziran ortu komunitarioren berrogeigarren urteurrenagaz batera.

OPEL

Ibaigane, s. Coop. Ltda.

Estazioa, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Telo: 631 33 30 - 631 31 31  
Fax: 631 36 15

Ametzola  
Landetxea

Ametzola 1-1  
48499 Zeberio  
629 429 870  
www.ametzola.net

FISIOTERAPIA

Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718

www.gruposasoibide.com

Tel.: 94 657 54 50



## HERRI KIROLAK

**Zeanurik errez irabazi eutsan Dimari desafioaren lehenengo norgehiagokea****Irati Urien**

Apirilaren 13an Dima-Zeanuri herri kirol desafioa egin zuen Dimako frontoian. Sarri aldeak handiak izan ez baziran be, Zeanurik errez irabazi eutsan Dimari. Nahiz eta Dimak neskatan ingudean irabazi eta mutiletan trontzan, osotara proba danak irabazi ebezan Zeanurikoak. Honeek izan ziran egin beharrekoak: txokorrak, zakua, txingak, ingudea, trontzea, aiz-

korea eta sokatirea. Mikrofonoa eskuan, Ibon Iza ibili zuen aurkezle lanetan. Norgehiagokea bertso batez hasi eban dimoztarrak. Probak aurrera joan ahala Zeanurikoak zeozertxo irabazten itxeko esaten eban umorez, baina alperrik. Dimak 8 puntu lortu eban guztira, eta 13 Zeanurik. Frontoia gainezka eta animo zein txaloak falta barik, giro itzela sortu zuen desafioan. Bando bietako parte hartzaileak ondo entrenautea joan

zirala ikusi zuen. Oraindino hobeto preparatu beharko dira Zeanurik maiztaren 4an jokatu eta bueltako desfiorako, herri batak

be ez deutso eta besteari errez irabazten itxiko. Desafioko argazkiak BEGITUEN web orrialdean ikusi daitezke.

**Dima eta Zeanuriko taldeak batera.**

## FUTBOLA

**Arratiako taldeak irabazle azken jardunaldian****Clara Luja Azpiri**

Arratia taldeko andrazkoak garaile izan dira Deportivo Alaves taldearen kontra jokatuako partiduan, bost eta bat. Partidua Igorreko Urbietan zelaian izan zuen, apirilaren 13an. Saillapenaren zazpigarren postuan dago orain Arratia, hogetalaugarren jardunaldiaren ostean. Hurrengo partidua Beasain taldearen kontra izango da, apirilaren 21eko astegoienean, baina ora-indino ez dagoz zehaztuta eguna eta lekua.

**Gizonak be bost gol**

Gizonak Basurto A taldearen kontra jokatuako partidua irabazi egin dabe, bost eta huts. Partidua Bilboko Iparralde zelaian izan zuen, apirilaren 14an eta arratiarrak errez irabazi eban. Hogeta bederatzigarren jardunaldi honen ostean, arratiarrak saillapenaren goiko partean dagoz, zortzigarren postuan hogeta hemeretzi puntugaz. Hurrengo partidua Urbietan izango da, Igorreko zelaian, apirilaren 20an, zapatua, arrastiko seiretan. Arratiarrak Begoña futbol taldearen kontra jokatu dabe.

## MENDIA

**Ganzabalen erakusketa ikusgai****Erredakzioa**

Ganzabal Mendi Taldearen Mendirik Mendi argazki erakusketa ikusgai dago honezkeroko Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Apirilaren 8tik 30era bitarte ikusi ahal izango diran argazkiak, Ganzabal Mendi Taldeak 2012 urtean antolatutako 6. argazki lehiaketan

parte hartu eban taldeko bazkideen argazkiak dira.

Lehiaketak gai bi izaten ditu; Ganzabal Mendi Taldeko ekintzak eta Natura eta mendia.

Argazki lehiaketaren helburua jenteari argazkiak ateratzeko animetea da, bai Ganzabaleko urtekeretan edo euren kabuz mendiaz edo naturaz gozatzen dabenean.

**Argazki erakusketako kartela.**

## TXIRRINDULARITZEA

**Arratiako Ziklista Elkarteko txirrindulari gazteak.****Bizikletan ibilteko aukerea AZEn****Erredakzioa**

Arratiako Ziklista Elkartek (AZE) animau gura ditu arratiarrak bizikletan ibiltzen ikastera. Izan be, kirol hau bizitza osorako da eta "osasungarria, ekologikoa eta ekonomikoa". Eskolan izena emon daikie 9 urte eta 16 urte bitarteko neska-mutilak. Entrenamentuak Igorreko futbol zelaiaren inguruko zirkuitoan izaten dira eta erropea doban ipinten dau alkarteak entre-

namentu eta lasterketak egiteko. Bizikletarik euki ezean, bizikletea be ixten deutso AZEk ikasleari.

Urtean 16 lasterketan parte hartu daikie eskolakoak, bakoak bere edadekoakaz. Ez bakarrik kaminoan, ziklo-krosean, mendi bizikletan eta pistan be lehiatzeko aukerea daukie AZEko ikasleak. Gainera, "bizikletea bizi osorako kirola da eta bizikleteagaz eskolara joan, erosketak egin eta txangoak egin daitezke" dinoe AZEkoak.

**Arratia taldea Urbietan.**

**indar**  
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
t. 94 655 47 19  
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

umean moda

**SEM**  
0-16

Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu

Bixarra egin eta txukunduten dogu

Elejalde, 20 Rober ☎ 630 743 543  
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN

**ZUZENBIDE**

ZERGA ETA DERU KONTSULTAN  
ONDASUN HIGIEZINEN  
ASIGURULETAN

Beldre Arana, 3. Floor. 94 673 71 61 - Fax: 94 673 94 61 - 48140 IGORRE

**axular**  
kultur dibertso

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.l.**  
CONSTRUCCIONES

Iturriotz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Fax: 94 673 95 25  
e-posta: obras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK

**Pinturas Arratia**

Javi Morato  
Tel. 628 443 992



MENDI MARTXEA

Ubideko Bira 2013

Aprilaren 21ean egingo da aurtengo Ubideko Bira.

Irati Urien

Antolatzaileak aurten be jente mordo hurreratuko dalakoan dagoz. Ibilbide luzea egiten dabenak goizeko 08:00etan urtengo dabe, eta laburra egingo dabenak, barriz, 08:30ean. Honeek dira ibilbide laburrak (19 km.) ikutuko dituan puntuak: Ubide, Harrobiak, Azero, Atxurdin eta Ubide. Luzea (33 km.), ostera, puntu honeetatik pasauko da: Ubide, Siskino, Harrobiak, Mairu, Azero, Gorbeia, Arimekorta, Atxuri, Saldropo, Otxarreta, Ubidegoiti, Motxotegi, Gaztelu eta Ubidebarriro. Izena emoteko modu bi dagoz: bata, egunean berean urtekeran 07:30etik aurrera eta 10 euroko prezioagaz; bestea, <http://ubidekobira.es.t/> helbidera sartuta. Internet bidez ordainketea aurretik egin ezker, 7 euro ordaindu beharko dira eta ordainketea egiteko atzenengo eguna apirilaren 19a da. Izena internet bidez emon baina egun berean ordaindu ezker, 10

euro dira ordaindu beharrekoak. Ubideko Biran parte hartu eta ibilbidea egiten dabenak edalontzi bat izango dabe opari moduan, hamaitakoa doban eukiko dabe eta Ubideko produktuen otzara baten zozketan be hartuko dabe parte.

Argazki lehiaketea

Urtero lez, argazki lehiaketea be egongo da. Ibilbidean zehar argazkiak atera eta lehiaketan parte hartuaz bi personentzako bazkari edo afarirako txartela irabazteko aukerea egongo da Ubideko Urbide jattetxean. Argazkiok ubidekobira@gmail.com helbide elektronikora edo Ubideko Bira, San Juan 4, 48.145 Ubide (Bizkaia) helbidera bialdu behar dira. Flickeren ipiten dabez gero argazkiok eta urrietan irabazlea aukeratzen dabe. Bira egiten dabenak gero eta argazki politagoak bialtzen dabezala-eta irabazlea nor dan ebaztea ez ei da erreza izaten antolatzaileak dinoenez.



Ubideko ibilaldiaren perfila.

RAID

II. Arratia Raida martxan dago

Erredakzioa

Aurten be, Arratian, Euskal Herriko Columbia Raid Serieako proba bat antolatuko dau Xegiba taldeak Areatzako Kultur eta Kirol Batzordea eta Areatzako Udalaren laguntzeagaz. Areatzan izango da, maiatzaren 11n. "Aurtengo ligan, nobedade batzuk dagoz, modalidade desbardin bi egongo diralako. Betiko 7 orduko proba egiten dabenen liga, Euskal Herriko ligarako klasifikazio ofizialerako baliogarria izango dana eta 3 ordu eta erdiko proba herrikoia, Easyraid izenekoa. Azken hau errezagoa da eta Raid munduan hastea gura dabenentzat pentsauta dago. Gainera, kategoria honetan, sektore bat bakarrik egitea be posible da, adibidez, bizikletea bakarrik, edo orientazioa bakarrik, eta abar" dino Xabier Iturriagak, Xegiba taldeko kapitainak. Baina biak be, proba politak izatea espero dabe antolatzaileak, trekina, mendiko bizikletea, orientazioa,

patinak (aukerako proba), proba sorpresak, eta abar eukiko dabez. Izen emotea apirilaren 16an hasi zan.

Programea

"Astegoen ederra izatea espero dogu" dino Iturriagak, eta horretarako astegoen osoko programea osotu dabe. Barikuan, Adolfo Madinabeitiaren berbaldi-dokumentala egongo da. Zapatuan, goizeko 10:00etan, kategoria ofizialeko Raida hasiko da eta 11:30ean Easy-

raid deritxana. 17:00etan helduko dira atzenengo partaideak helmugara. Bazkari-afariaren ostean, sari banaketea egingo da, kategoria bakotzeko lehen hiru sailkatuak eukiko dabez sariak. Emongo diran 9 sariak, Hotel Hesperia Areatzak emongo dauz. Gauean, Areatzako Gaztetxeok, jaia antolatu dabe eta bertan Mariskal Dejai egongo da.

Inskripzioak egiteko eta informazio gehiago <http://xegibaaiara.blogspot.com.es/> helbidean.



Artean egin zan igaz Arratiako lehenengo Raida.

PELOTEA

Areatzako udabarriko eskupelota txapelketea

Erredakzioa

Areatzako Kultur eta Kirol Batzordeak udabarriko esku pelota txapelketa bat antolatu dau. Partiduak aprileko, maiatzeko eta ba-



Lehiaketako kartel iragarlea.

gileko eguazten eta zapatuetan jokatuko dira Areatzako frontoian.

Binakakoa da norgehiagokoa eta ligaxka moduan jokatuko da. Profesionalak izan ezik, Arratiako beste edonork hartu ahal dau parte txapelketa honetan. Antolatzaileak hamar bat bikote aurkeztuko dirala aurreikusten dabe eta finala bagilaren 22an izango da. Egun horretan 2013ko AKKB eguna izango da "jai handia izango da, herri kirolak egingo dira eta eskupelota txapelketa honen finala" dino antolatzaileak.

**HERRIKO BENTA**  
HOSTAL  
HERRIKO PLAZA  
48142 ARTEA (Bizkaia)  
Tel. 94 631 72 56

**expert ARRATIA**  
E-posta: [expertarratia@cordevi.com](mailto:expertarratia@cordevi.com)  
Leh. Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE Fax 94 631 52 89

**bbk**

**Gure Ikastetxeak**  
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikoa

- Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea
- Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitez bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak

[arratiako.zekorrak@gmail.com](mailto:arratiako.zekorrak@gmail.com)  
<http://santxisme.blogspot.com/>



## FILMA

**Autodeterminazio eskubidearen inguruko dokumentala Arantzazun****Erredakzioa**

Hilaren 19an arrastiko 19:00etan Arantzazuko Bilduren eskutik *Gazta zati bat* dokumentalaren emonaldia izango da Arantzazuko erabilera anitzeko lokaletan, autobus geralekuaren ostean. Dokumental hau, Nazioen Mundua proiektuaren barruan dago.

Nazioen Mundua "autodeterminazio eskubidearen aldeko Goierriko ekimena da". *Gazta zati bat*

dokumentalak mobimentu hau ezagutzera emon gura dau.

"Jon Maiaren gidaritzapean, ebazteko eskubidearen inguruan aurrera atera eta euskal gatazkearen gaia modu barrizalean aurkezten dauan filma da hau. Angel Oiartzabide, ekimen honetako kidea be egongo da Arantzazun. Honek, Nazioen Mundua proiektua eta dokumentalaren gora-beherak azalduko ditu" Arantzazuko Bilduk

jakitera emon dauanaren arabera. Dokumentalaren ostean, gaiaren gaineko mahai-ingurua egongo da.



Kartela.

## ANTZERKIA

**Arratiako aktore gazteak Lasarte Aretoan****Erredakzioa**

Arratia Institutuko hogei ikaslek ikasturte osoan prestatu dabean antzezlan bi taularatuko ditue Zugan Ni jaialdian. Zugan Ni proiektuaren seigarren edizino honetan parte hartzean dituen zazpi taldeak lau egunetan erakutsiko ditue euren lanak, tartean Arratia Institutuko talde bik. Arratiakoak

*Petralandako ingurumarie* eta *Goizeko izarra* lanak antzetzuko ditue.

Lau egun hartuko ditu jaialdiak. Iurretan hasiko da hilaren 24an; eta 25 eta 26an arrastiko 20:00etan Igorreko Lasarte Aretoan egongo dira Igorre eta Zornotzako taldeak. Hilaren 27an, barriz, Zornotzan; eta 28an, Durangon erakutsiko dabez gazteak lanok publikoaren aurrean. Atzenengo herri bi honeetan, parte hartzean daben zazpi taldeak egongo dira.

Zugan Ni eguna Zornotzan ospatuko da eta egun horretan "gazteriak hartuko dau herria" Jon Kepa Zumalde Markeliñekoaren berbetan.

2010ean Arratia Insitutuko talde batek irabazi eban lehenengo saria *Makal azpian* lanagaitik.

**Sormena bultzatzen**

Markeliñe konpainiak sortutako Zugan Ni proiektuak, antzerki mundua nerabeai hurbildu gura deutse. Proiektua 13 eta 18 urte bitarteko neska-mutilai zuzenduta dago. Ikasturte osoan zehar gazteak euren antzezlanak sortu eta taularatu egiten dabez eta kurso amaieran publikoaren aurrera erosten dabez Zugan Ni Antzerki Jaialdian. Gainera, 2011tik aurrera, jaialdirako kartelaren lehiaketara antolatuten dau Markeliñek, beste arte lan batzuk bultzatzeko.

## BERBALDIA

**Eric Bertran, *Fenix 1123* filmaren protagonista Areatzan**

Eric Bertrane 23 urte ditu orain.

**Erredakzioa**

2004an, Eric Bertran 14 urteko mutikoak *Harry Potter* eta *Fenixaren ordena* istorioan oinarritutako webgunea sortu eban katalanera defendatzeko eta supermerkatu kate handi bateri etiketak katalanera ipinteko eskaerea bidali eutsan. Gau baten, Terrorismoaren aurkako Madrilgo brigadaren hogeta hamar bat guardia zibil familiako etxean sar-

tu, eta informatikako terrorismo delitua leporatu eutsien Eric Bertrani. Benetako gertakari hau kontetan dau *Fenix 1123* filmak eta apirilaren 26an, arrastiko 19:30ean ikusteko aukerea dago Areatzako Udal Aretoan. Historia honen protagonista, Eric Bertran bera be egongo da bertan eta filma hasi aurretik eta amaitutakoan beragaz berba egiteko aukerea izango dabe hurreratzeko diranak. Areatzako Udalak antolatu dau ekitaldi hau.

## IKERKETEAK

**Suediako Hezkuntza Telebista Arratia Institutuan**

Suediako telebistakoak Arratia Institutuan grabazioa egiten.

**Erredakzioa**

Suediako Hezkuntza Irrati-Telebista, hizkuntza bat baino gehiago berba egiten dan hiru herrialdetan grabetan dabil eleaniztasunaren gaineko programa-sorta bat. Arratia Institutua aukeratu dabe euskerearen normalizazioa eta kanpotik etorritako euskerearen jabetze prozesua azaltzeko eta apirilaren 12an bertan egon ziran ikasle eta irakasleak alkarriketarako egiten. Institutuaz gainera, Eroski kooperatibaren be grabatuko dabe, euskerearen normalizazioaren nondik norakoak jasoteko. Arratiara etorri baino lehen, Katalunian egon dira eta Galizara joango dira gero. Azkenik Madrilera joango dira Suediako telebistakoak "podere zentralagaz" berba egiteko.

Hiru telebista saio egiten dabiz hizkuntza ofizial bat baino gehiago daukien hiru herrialdetan: He-

goafrikan, Kanadan eta Espainian, hain zuzen be. Hegoafrikak 11 hizkuntza ofizial daukaz, Kanadak bi eta Espainiak lau. "Askotan eleaniztasuna arazo bat balitz moduan enfoketan da eta ez aberastasun moduan. Suedian saio asko dagoz ze gatxa dan suedierak ikastea eta ze arazo dan hori etorkinen seme-alabentzat esaten dabenak. Guk beste ikuspegi bat emon gura deusagu eleaniztasunari" azaldu deutso BEGITURI Suediako telebistako kazetariak.

Arratiako Institutuko normalizazio plana eta etorkinen seme-alabak euskerea irakasteko indartzeko programea interesau jakie batez be suediarri. Baita, bertan sortutako materialak eta antxinako berbak eta tradizioak jasoteko ahaleginak.

**Institutuak sortutako materialak eta ekintzak**

Suediako telebistaren interesa-

ri pozgarri eretxi eutsien Arratiakoak. "Gure ardura be bada, munduan zabaltzea zer egiten dogun. Horregaitik gu harro gagoz hona datozenean. Arratiako Institutuak normalizazio proiektuan eta elebitasun garenan ibilbide luzea eta esanguratsua dauka: dala ikasleak sortzean dituen materialak esker, dala Dunbaren bidez egiten dituen artikulua esker eta beste hainbat ekimeneri esker. Bertara etortea, Arratia Institutuak egin dauan lanari errekonozimendua egitea da" azaldu eutsan BEGITURI Jasone Aldekoak, Normalkuntza Teknikariak.

Arratia Institutuan sortutako CDak, AK37ren disko biak, *Umeen zentzune etxean entzune* proiektukoak eta *Arratiako Hitzegiak* interes handia sortu ebela dino Angel Larrea Institutuko irakasleak.



## ANTZERKIA



Iker Galartza eta Itziar Atienza.

### **The Full Monty eta Gauerdian antzezlana Lasarte Aretoan**

Hilaren 20an eta 27an antzezlana bi taularatuko dabez Igorreko Kultur Etxean. Arrastiko 20:00etan izango dira antzezlana.

#### Erredakzioa

Berrizko Txintxaun Kolektiboaren eskutik ikusi ahal izango da *The Full Monty* (gaztelaraz) film ingelesaren adaptazioa. Komedia dramatiko honetan, langabeziaren arazoa eta egoera ekonomiko larrian dagozaren arazoak islatzen dira. "Antzezlaren protagonistak langabezian dagozan 6 langile dira, duintasuna berreskuratzeko ibilbidean dagozan 6 langile. Andoni Ruizek hartuko dau protagonistearen rola, Gas-

parrena. Gasparrek semea ikusteko eskubidea galduko dau pentsino ordaintzeko lana lortzean ez dauan bitartean. Honen aurrean, *strip-tease* ikuskizun bat sortzea otuko jako, egoera berean dagozan 5 lagunegaz batera" dino sinopsiak.

Andoni Ruizegaz batera, Joseba Romero, Aitor Aresti, Fore Pérez, Aitor Berrio, Aitor Pareja, Sardo Irisarri, Alicia Otxoa, Izar Narbaiza eta Maite López aktoreak ibiliko dira. Koreografiak Nerea Osésenak dira.

#### **Tantaka Teatroaren Gauerdian antzezlana 27an**

Aurreko asteko *The Full Monty* antzezlaren hurrengo astegoien helduko da *Gauerdian* antzezlana. "Bikotekideak itxi ostean hartuemon egonkor bat izateko amorratzen dagoan abogadu gaztea da Helena. Bob topauko dau, negozio susmagarrietatik bizi dan artista frustraua. Sekulako mozkorraldia proposatuko deuto Helenak, eta ohean amaituko dabe. Hurrengo egunean, zein bere zereginetara bueltatuko da, baina sanjuanetako magiak barriro alkartuko ditu, eta, astegoien surrealista, atsegina eta poetikoa biziko dabe" dino sinopsiak.

Iker Galartza eta Itziar Atienza aktoreak dira komedia "samur eta dibertigarri" honetako protagonistak.

Bazkideak sei euro ordaindu beharko dabez ikuskizunok ikusteko, besteak zortzi euro.



*The Full Monty* antzezlana.

## LEHIAKETEAK

### **"Gure herriko emakumeak" lehiaketea**

#### Erredakzioa

Lemoako Udaleko Bardintasun Arloak "Gure herriko emakumeak" izeneko lehiaketea antolatu dau. Lehiaketa honen helburua andrak udaleriari egindako ekarpenak eta bizi izandako egoerak berreskuratzea da. Forma desbardinatetako lanak aurkeztu daitezke: ikus-entzunezko materialak, argazkiak, iraganeko eskutitzak, eta

abar, maiatzaren 9a baino lehen udal-letxean. Lemoako edonork hartu ahal dau parte lehiaketa honetan.

Ez bakarrik forma aldetik, eduki aldetik be ugariak izan daitezke lanak eta Lemoako andren ofizioak, auzunetan eukiezan gizarte dinamikak, gerra edo gerraosteko bizipenak, berbarako, izan daitezke gai batzuk. Lan bi sarituko dira 50 eurotako Elkarreko opari txartel banagaz eta aurkeztutako lan guztiak erakusketa bat antolatutako asmoa daukie. Erakusketea maiatzean izatekoa da Kulturgunean.

Lanak euskeraz zein gaztelaraz egon daitezke eta egilea identifikatu daitekan xehetasun barik, izenburu edo izengoiti batez entregatuko dira. Egilearen datuak kartazal itxi baten emongo dira.


## LEHIAKETEAK

### **Eskean Kristo musika talde arratiarrak botoa behar dau**

#### Irati Urien

Eskean Kristo Gaztea Maketa Lehiaketako bozketa fasera sailkatu da. Botoa emoteko eskatuten dabe taldekoak eta egunero boto bat emon leiteke. <http://www.eitb.com/eu/>

gaztea/maketa-lehiaketa/ helbidera sartu eta bertan "Zaztamar" kantea aukeratu behar da. Momentuz bigarren postuan dagoz. Hilaren 22an jakingo dira boto gehien daukiezan maketa biak zeintzuk diran, eta bi horreek finalera pasauko dira.



Eskean Kristo taldekoak.

## DUNBA

### **Barrero be eskolara!!**



Zeberrioko eskolako 5. mailako ikasleak.

#### Zeberrioko eskolako 5. mailako ikasleak

Gaur, apirilaren 8a da eta barrero be, eskolan gagoz! Zelako lastime... Aste Santuetako oporrak amaitu dira!

Klasean sartu garanean, pozik sentidu gara lagunak barrero ikustean. Baten batek negar eta guzti egin dau! Ai ai ai! gero danak malko dariola! Kontuz, uriolak gelan!

Bat-batean, atea zabalduetan, irakasle hotsa entzun eta orduan bai hasi dirala benetako negarrak eta sufrimentua!

Liburuak atera behar eta lanean hasi, zuzenduten, irakurketea, idazlanak, proiektu barrirako galdetegia...

Neke-neke eginda patiora joateko ordua heldu da. Jolasteko saioa baina, hau bai hau! Danok lur jota lo geratu gara liburuen gainean. Irakasleak, orduan tanborra hartu dau eta pum, pum,

pum! Danok firme! Azkenean, lortu dogu patiora urtetea, amaierako 10 minutu labur horrek disfrutetan pasatuko oporren irudimenagaz.

Jantokira joateko ordua heldu da. Zelako subertea etxera bazkalduten doazenentzat!

Amamak egindako kroketa gozoak, aitek prestatutako makarroiak... mmmmm! Agoa ur egiten jaku. Eta bukatzeko... arrosesnea, gozo-gozoa.

Egia da, eskolak bere alde onak badaukazala, nahiz eta batzuetan ez topau; bizitzan moldatzen ikasten dogu, lagunakaz dibertiduten gara, olgetan gara eta barnetegietan jente barria ezagutzen dogu... Benetan be laster ohituko gara eguneroko bizitzara; hori dalako momentu honetan egin beharreko lana.

Goraipatuteko, hainbeste maitate dogun eskolea bertsolaritzan ikasi dogun bertso honegaz amaituko dogu...



#### **AI ZAPOTXIN**

Ai, Zapotxin, ez dago zer egin, guraso eta irakasleekin.

Hainbeste irakasle, hainbeste tutore, libre-libre utziko bagintuzte hobe.

Eskola bukatuta, solfeo ta inglesa, horiek baino hobe da igandeko meza.

Ai, Zapotxin, ez dago zer egin, guraso eta irakasleekin.



## AGENDEA

APRILA  
IGORRE

Ganzabal Mendi Taldearen Mendirik Mendi erakusketea Kultur Etxeko erakusketa gelan hilaren 30era arte.

Jubiladuak antolatutako bijsa. Maiatzaren Setik 19ra Peñiskolara. Izena emoteko epea zabalik.

19:00etan Jai Batzordearen batzarra martitzenero.

APRILAK 18  
AREATZA

19:30ean, Lamino Mendi Taldeak antolatuta, Eneko Etxebarrieta bidaiariaren berbaldua Udal Aretoan.

## LEMOA

Elikagaien manipulatuak ikastaroan parte hartzeako izena emoteko azken eguna.

APRILAK 19  
ARANTZAZU

19:00etan, *Gazta zati bat* dokumentala erabilera anitzeko lokaletan. Ondoren, berbaldua Angel Oiarbidegatz. Bilduk antolatuta.

## AREATZA

22:00etan, The great park and fee reegaren kontzertua (folk globala) The Quiet Corner-en.

APRILAK 20  
AREATZA

22:00etan, Disk Breakers-en kontzertua The Quiet Corner-en.

## IGORRE

20:00etan, Txintxaun kolektiboak *The Full Monty* antzezlan Lasarte Aretoan.

## LEMOA

Itzartu programearen eskutik, 12-18 urteko gazteak *Break on stage* ikuskizunera urtekerea (Bilbo).

APRILAK 21  
AREATZA

08:00etan, Lamino Mendi Taldeak antolatuta, Aizkorria mendiko urtekerea. Eleiz portalean.

## ARTEA

09:00etan, AKKTK antolatuta mendiko markea.

## IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Oz un mundo de fantasia*. 19:30ean, *Mama* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

19:00etan, Aldatzen laguntzen taldearen eskutik *Ispilua* antzezlan Karabie Gaztetxean.

## UBIDE

07:30ean Ubideko Birako izen emotea zabaltzen da. 08:00etan, Ubideko Biraren urtekerea plazatik.

## ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak urtekerea Toloñora.

APRILAK 22  
BEDIA

17:00etan, tailerren astea: ipuinak sortu. Liburutegian.

## LEMOA

17:00etan, Elikagaien manipulatuak ikastaroa Elizondoko Kultur Gunean.

APRILAK 23  
BEDIA

Liburuaren Eguna. 18:00etan, txotxongiloak liburutegian.

## DIMA

Liburuaren Eguna. 18:00etan, ipuin kontalaria liburutegian.

## LEMOA

Lemoako II. Narrazio lehiaketan lanak entregetako azken eguna.

Liburuaren Nazinoarteko Eguna. Goizean *bookcrossing* 5. eta 6. mailako ikasleak heritik zehar. 17:15ean, Oihana Etxegibel Alberdi ipuin kontalaria 3-5 urte bitarteko haurrentzako saioa eta 18:00etan 6 urteko gorakoentzat.

APRILAK 24  
BEDIA

17:00etan, tailerren astea: ipuinak sortu. Liburutegian.

19:00etan, Irakurle Klubean Karmele Jaio egongo da *Ez naiz ni* liburuaren gainean berba egiteko.

APRILAK 25  
AREATZA

19:30ean, zineforuma Jose Angel Rebolledoren

berbaldua "El sonido en el cine". Udal Aretoan.

## LEMOA

19:00etan, Ganzabalek antolatuta berbaldi tekniko "Oinetakoak" Jubiladuen gaineko aretoan.

APRILAK 26  
AREATZA

22:00etan, Luber Jack (rock&roll) taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

## BEDIA

17:00etan, tailerren astea: ipuinak sortu. Liburutegian.

## IGORRE


19:30ean, hileko azken barikua, Herriak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko kontzertuzinoa.

## LEMOA

19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta *stretching* saioa jubiladuen etxeko goiko aretoan.

19:30ean, hileko azken barikua, Herriak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko kontzertuzinoa.

Bertsu afaria Karabie Gaztetxean.



## Edurne Brouard Areatzan izango da

Areatzako Emakume Foroak antolatuta Edurne Brouard eta *Mariposas en el hierro*, Bertha Gaztelumendik zuzendutako dokumentaleko beste protagonista batzuk izango dira Areatzan hilaren 19an, arrastiko zazpiretan Udal Aretoan. Dokumentala ikusteko eta protagonistakaz berba egiteko aukerea izango dabe bertaritzen diranak.

Dokumental honetan Euskal Herriko andra batzuek bizi izandako biolentziaren testigantzea emoten dabe. Indarkeria matxistaren biktimak, ETArek biktimak, GALen biktimak, emakume etorkinak, etxe-kaleratzea jasan dabenak, biolentzia ekonomikoaren biktimak... agertzen dira dokumentalean.

## IRAGARKI LABURRAK

SALDU  
SALGAI

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

## SALGAI

Haretezko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuera. Ikusgai dago Elelalde 10ean, Igorren. 800 €. 615 731 182.

## AUTOA SALGAI

Fiat Punto 1.2 Dynamic 5 ateduna. 8 urte ditu. ITVa 2014ko bagilera arte pasauta, 672 762 066 (Gaizka).

## AUTOA SALGAI

Toyota Landcruiser-a saltzean dot. Interesdunak 615 728 940 zenbakira deitu (Pili).

## ETXEA SALGAI

Babes Ofizialeko pisua salgai Areatzan. Aukera ezin hobea Arratian biziteko. 3 logela, bainu bi, sukalde ipinita, saloia, garagea eta trastelekua. Nerea 674 798 984.

## DANERIK

## ETXEA ALOKATZEN DOGU

Alokairuan dagoan pisu baten bila gabizan

neska arratier bi gara. Alaitz eta Maider 652 722 698.

## GARAJE ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorreko erdigunean. 659 395 911. Luis.

## BIZIKLETEA GURA DOT

Errepidean ibilteko bizikletea gura dot. Zaharra eta merkea bada, barria eta karua baino hobeto. Idatzi: sautuolabarri@gmail.com helbidera.

## GARAJE ALOKAIRUAN

Zeanuriko plaza-plazan dagoan garajea emongo neuke alokairuan. Interesdunak 94 631 70 46 telefonora deitu (Iluntzetan).

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *The Full Monty* antzezlenerako.

Marian Garai (Lemoa)  
Gontzal Mendibil (Zeanuri)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Gauerdian* antzezlenerako.

Maider Martinez (Igorre)  
Amaia Saez (Arantzazu)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11

urte eta


ehundaka

lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA


1.- Samur. Bokala. 2.- Galant. Neptunioa. 3.- Animaliak agertzen diran ipuin edo elezaharra. 4.- Bat erromatar. Portale. 5.- Nori atzizkia. Bokala. Jainkoa, hizkuntza semitikoetan. 6.- Iparraldean, neurri. Bokala. 7.- Goitegia. 8.- Indioaren sinboloa. Bueno. 9.- Nitrogenoa. Soldaduen arma.

### GOITIK BEHERA

1.- Jainko germaniarra, lurraren antolatzailea. Bor-bor egin. 2.- Kretako mendia. Existidu. 3.- Kuartua. (Atz.) Birritan, umeen berbetan, ura. Konsonante bat. 4.- Uretara joan. 5.- Konsonantea. Galioa. Begiaren parte bat. 6.- Neure. Zeregin, egiteko. 7.- Auzi-gizon. Galdera aurretik.



Topau zazpi sendabedar tiporen izenak.



# AKI MI KO

Aitzi ber



**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**  
Instalazio elektrikoak - Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak  
Juan de Auriagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

*Los Chopos*  
neurri egindako armairuak  
Avda. Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94  
**Esposizioa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**FOTOKOPIAK - PAPERBENDA**  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 35

**INCOESA**  
Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

**AKETEGIA**  
**GAY IS LORA**  
**IGORRE**

\*KIRRU\* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bejo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
# 94 631 92 00

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Emilio Goitia banatzaile ofiziala  
**San Miguel**  
Ardoak Edariak  
94 673 64 02 Industrialdia E-3 Pabeloa (Igorre)

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ  
Balneario: A1, A, B1, B  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnoa.: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@vokalnet.net

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80  
e-posta: urrozulu@vokalnet.net

## AITOR MADARIAGA

**Futbolak badauka neska futbolarien harrobia Arratian**

Aitor Madariaga CD Arratia haur mailako neska taldeen delegadua da. Bere alabak futbolean jokatu gura eban eta talderik ez egoala konturatuta, sortzea pentsau eban. Ez hori bakarrik, zerotik hasita nagusiakaz lotzeako behar beste talde sortzea pentsau eban, futbol talde nagusiak bere kanterea euki dagian. Horretan dabiz eta datorren urtean kadete talde bat sortu ezker, euren ametsa beteta izango dabe Madariagak eta Arratiako neska futbolariak.

**Erredakzinoa****Ze edadetako umeak, ze taldek osotuten dabe Arratia taldeko nesken harrobia?**

Kimu talde bat daukagu (11-12 urte) eta haur talde bat (13-14) eta datorren urtean kadete talde bat (15-16 urte) aterateko gogo daukagu. Orduan katea osorik eukiko dogu kimuetatik hasi eta nagusiakaz lotu arte. Horixe da gure helburua.

**Zelan doa denporaldia?**

Bikain. Aitatzekoa da ume honek daukien ekipo izpiritua, egiten daben taldea. Baten arazoak danen arazoak dira eta batek barre egiten dauanean danak egiten dabe barre.

Emoitzetan be ikusten da hori. Haurrak bikain dabiz. Ligako txapelidunen fasean dagoz, eta hor be hiru partidutik bi irabazi doguz. Pozik gagoz. Dana dala, emoitzarik onena taldea bera da.

**Guztira zenbat ume dagoz?**

Hamalau kimuetan, hamairu haurretan eta datorren urteari begira kadete talde bat egitea espero dogu eta guztira 40 bat neskatxi izatea espero dogu. Orain 27 dagoz.

Aurten, geratu jakuz 5-6 neska jokatu barik ez gendualako lortu taldea osotuterik. Hurrengo urtean eukiko dogu kadete-jubenilen talde bat.

**Arratian nesken futbolak gora egin dauala uste dozu?**

Sano. Lehen ez egoan ezer. Talde bat egin genduan eta haxe egoan bakarrik orduan, kimu talde bat eta nagusi talde bat, ezelango lortu barik. Eta apurka-apurka lortu dogu talde bi egitea eta pare bat urte barru nagusiakaz lotzeako beste talde egongo dira.

Lehen neskentzat ez egoan txikitatik hasita eta nagusi izan arte futboleant jokaturteko aukerea Arratian. Laster izango dabe



aukera hori Arratiako neskek.

**Hori euskarri handia izango da nagusientzat, ezta? Pozik hartuko dabe.**

Bai. Apur bat desanimauta egozan ez ebelako atzetik ezer ikusten eta orain ikusten dabezanean taldeak poztu egiten dira eta eurak be, akaso, eutsiko deustie barriak etorri arte.

**Publikoaren aldetik zelan dago nesken futbola?**

Publiko gitxi daukagu. Gurasoak, batez be. Baina lehen ez egoan ezer eta dagoan apurra poztekoa da. Gustauko litxakit, dana dala, zeozer egitea jentea neskek ikusten joan daiten.

**Arratia futbol taldeko neskek mutilak baino kategoria hobean dagoz.**

Bai. Holan da. Baina ikusle askoz gitxiago daukie. Nire helburua litzateke futbol zelaia betetea, sarrerea ordaindu barik izanda be. Penea emoten dau jentea ez joateak.

**Entrenadoreak zeintzuk dira?**

Kimetz Iturbe eta Asier Lopez eta Iker Corbacho dira entrenadoreak. Datorren urterako bes-

teren bat topau beharko dogu, beste talde bat euki gura dogu eta. Taldeotan, Zeanuriko neskek, Dimakoak, Lemoakoak, Areatzakoak, Arteakoak... herri guztietakoak dagoz, eta gurago izaten dabe jateari ixtea futbolari ixtea baino. Institutura joaten diranean be, horretarako lagungarri izaten da eurentzat, lagunak badaukiez eta. Gutziz pedagogikoa da futbola.

**Astegoienero jokatuten dabe?**

Bai, ligan jokatuten daben taldeak astegoienero jokatuten dabe. Haur mailakoak liga horretan hasi ziran eta sailkatu egin ziran hurrengo faserako, txapelidunen faserako, hain zuzen be. Kimuak barri-barriak izan arren 2013ko Kopea irabazi dabe. Orokorrean sano ondo dabiz eta Arratiatik kanpo be izena hartzean dabiz Arratiako neska futbolariak.

Izena emoteko aukerea bada-gu eta umeak jakin behar dabe Arratian futboleant jokatu gura badabe badagoala horretarako aukerea. Orain Arratia mailan neskek be badaukie aukera hori.

*"Umeak jakin behar dabe Arratian futboleant jokatu gura badabe badagoala horretarako aukerea"*

**Oparitu BEGITU-lagun!**

\* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparitutako deustazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

35€, 55€  
edo 75  
Euroren truke

